

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Arabako Urkabustaizko udalerrian Izarrako huako hondakin-urak isurtzeko baimenaren berrikuspena

Espediente-zenbakia: RAV-A-2020-0027.

Eskatzailea: Urkabustaizko ur-ermandadea.

Urkabustaizko Uren Ermandadeak baimena berrikusteko eskatu du Urkabustaizko udal-mugartean dagoen Izarrako HUAtik datozen hiriko hondakin-urak isurtzeko. Horretarako, dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar egun balioduneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Forondako Atea kalea 9, 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 21a

Ur-probetxamenduen arduraduna
AITOR BELDARRAIN URIONDO